

Maidier Iruretagoiena Albisu

F maila • **3 aipamena**

Kaixo! Maidier Iruretagoiena Albisu naiz, 9 urte ditut eta 2011ko maiatzaren 23an jaio nintzen. Beasaingo Alkartasuna Lizeoan ikasten dut.

Nire zaletasunak kirola, dantza, musika eta irakurtzea dira.

Egia esan, gauza asko egitea gustatzen zait.

Askok poztu naiz nire ipuina gustatu zaizuelako eta aurtengo Beasaingo idazlehiaketan parte hartu ahal izan dudalako.

Mila esker!



GAIXOTU ZEN BIRUSA

Bazen behin Kobid-19 izeneko birus bat. Koronabirus familian bizi zen. Etxean bizi ziren kideetatik txikiena bera zen. Familia osoa ateratzen zen kalera gizakiak kutsatzera baina bera ez zen ateratzen txikiegia zela esaten ziotelako. Jaio zenetik 18 urte zeramatzen etxetik atera gabe.

Azkenean 2019. urtea ailegatu zen eta bere estutasuna ezin eutsirik, esan zuen:

- Ama, aita, iritsi da nire unea 19 urteren ondoren, banoa!!!

Horrelaxe atera zen kalera poz-pozik.

Kobid-19ak bere buruari erronka bat jarri zion: egunero 10.000 pertsona kutsatzea. Zaila izanda ere lortzen zuen. Kobid-19a hain animatuta zegoen, ez zen konturatzen bere familia etxean zegoela atera ezinik.

Gurasoek zerbait egin beharra zuten eta egun batzuetan pentsatzen egon ondoren, zer egin jakin zuten.

Atera ziren kalera eta Kobid-19a bilatzen hasi ziren. Lau ordu edo gehiago bila eta bila egon ondoren aurkitu zuten.

Tratu bat egin zuten: Kobid-19ari bi urtez etxetik ateratzen eta nahi zuena egiten utziko zioten, aurreko urteetan etxean egon izanagatik, baina Kobid-19aren familia ere aterako zen.

Horrela egin zuten eta koronabirus familia osoa 2 urtez egon zen mundua kutsatzen.

2 urte horietako egun batean Kobid-19a bere etxera joan zen behar zituen gauza batzuk hartzera eta etxetik atera behar zuenean gaizki sentitzen hasi zen, gurasoei deitu zien laguntza eske. Gurasoak etxera iritsi zirenean zer zeukan argitzen saiatu ziren baina zoritxarrez ez zekiten zer zuten.

PROSA

Birus medikuari, deitu zioten zer zeukan jakiteko eta esan zuen familiako norbaitek kutsatu ziola gaixotasuna.

Hauexek izan ziren beren sendagilearen hitzak: “Birus batek beste birus bat kutsatzea oso zaila da baina hala ere kontu handia eduki behar da”

.Medikuak esan zien bi hilabetez ospitalean egon beharko zuela hobetu arte. Kobid-19a bi hilabete baino lehenago atera zen ospitaletik.

Jarraitu zuten gizakiak kutsatzen eta pozik aritu ziren.

Zuk zer uste duzu gertatuko dela Kobid-19arekin???